






TTiPi - TTAPA



"ARGIAN"
EGINA

- 1, 9, BERRIAK .- HERRIZ -HERRI .-
 11, IBILALDIAK .-
 12, 13, ILLEKUETA.- BERAKO PERXENTA.
 14, EUSKARAGIK LOTSATU ?
 15, 16, BIDEGORRIA BAZTAN-BIDASOAN ?
 18, 19, IPUIA .-
 20, 21, FRAIN AUZOKO BESTAK .-
 22, OLERKIAK .-



ARANTZA

ARRUZPI

JENDEA KEZKATZEN.

Arantza, herri «paketsua» izanik, azken aldi honetan gerla zikina dela medio gauzak piska bat estutzen hasiak dira.

Lehenengo egunean aldizkarian eldu zen bezala, orain dela aste batzu oiloak ziren erasotzak komandon baten bidez. Baina dirudienez erasotzaileak azken fineraino ailegatu nahi dute eta beren borroka oso definitua dagoela ematen du, beren atentatuak maizagotuz.

Horrela joan den astean Tomas Burlada delako gizon baten miga goiz batean arbol ondo batetan erraildua arapatu zuten.

Ziak berri hau jakin orduko jarri zituen kontrolak herriatik ateratzen diren pista guztietan eta «aduanatan» bigilantzia haunditu eta gogortu.

Nola nahi, hau dena alferrik izan zen eta, naiz pista batzu hartu, ez dute deus garbirik atera. Saiatu gara jakiten ze pista segitzen duten, baina sekreto

profesional dela eta ez digu ahal izan deus atera.

Berri honetaz herriatik kanpora ere ditu etorkizunak eta gauza zabaltzen ari dela ematen du.

Horrela auzo berri jaunak nagusiari doluminak eman ondoren, arazo hau zainetik molditzeko bidiearen bila hasi omen da. Eta neurri batzu artutzeko agindu du, jendea seguritate bat eskeiniatz:

-Herrira maizago «zakur» berezi batzu eraman eta rastreo batzu egitea.

-Sospetxosoak ongi begiratuak edukitzea, herriko espioia eta aduanen bidez.

-Baita ere pentsatzen ari da Arantzako interiorko ministroarekin egitea elkarrizketa, honetan aztertuko dira herriko zenbait nahastzaile Arantzatik urruntzeko posibilitatea.

Horrela bada gauzak gero eta larriagoak jartzen ari dira Bidasoako alde honetan eta jendea gero eta kezkatuago bizi da. Noiz arte??

HERRIAN EDO PORROT.

Arantzan joan den 5 urteetan biliguis-mo plana eraman dute eskolan. Orain ordea momentu zail batera ailegatu dira: 6. mailarako zer?. Azken urte hauetan bezala, Berara?.

Guraso batzu, maisu eta jendeen artean arrazoi batzu azaldu dituzte:

-Konzentrazioan ez dago hemengo haurrentzat maila egoki bat, maila oso desberdina eraman dutelako orain arte. Honek esan nahi du gela «espezial» batean egon beharko lutekeela. Diskriminatuak euskaldunak izateagatik.

-Arantzatik Berara joateko haurrak 15 kilometro egin behar dituzte, eta zenbait baserriak hainbat gehiago. Honek, jakingo duzuen bezala denbora bat eskatzen du eta batez ere neke bat. Izoratuak urruti bizitzeagatik.

-Haurrak konzentrazioa joaten hasi aurretik Arantzako 100 haurretatik 75ek 8. maila bukatu ondoren, jarraitzen dute beste ikastaro batzuetan. Orain berriz 100tik 35ek bakarrik. Arrazoiak?...

-Arrazoi hauek ikusiz jende honek erdaldun batera joanez eta txikietatik haurrei erdaraz irakasi, edo...

-6. maila bertan jartzea.

Eta lehenengoa baino errazagoa iduritzen, bigarrena agertu zioten ministerioari beren eskaera.

Hau ordea, beti bezala, oztopoak jartzen. Erantzun zieten maisurik ez zegoela horretarako.

Bainan nola Arantzan nahiko irakasle badagoen, (denak elebidunak: bi fijoak eta bi kontratatuak) besterik ekarri gabe, beste maila bat jartzeko, gurasoak beren erabakiakin aurrera jarraitu zuten eta hor daude orain erantzun alaitsu baten itxaroan.

Nola nahi bada jendea, ezezko erantzunen bat etortzen bada, Berako ikastolara begiak makurtzen dituenak, konzentrazioa baino erantzun obeagoa izanen ote delakoan.

Ilabete honen ondarraldia jakingo dugu zertan gelditzen den arazo hau.

ARANTZAKO IKASTOLA. Denak oso ongi badakigu gure herrietan zehar dauden ikastolen finantzaketa gero eta zailago badoala. Erakundeak ez dute diru gehiago soltatzeko asmorik, eta eraberean nork atera behar gure hizkuntza haurre-
ra?.

Herriak, garbi dago. Baina kontuz! Arantzan, behinik behin herritar batzu. Beste hoiek oso aurkakoak ditugu naiz eta sortzez euskaraz jaioak izan, hauek gaur euskara eben ama ukatzen, gaitsesten dute eta euskal-kutsu duten eginketa guztiak ez dituzte onartzen. Guretzat «limbo» edo horrelako leku batean sartu behar genituzke ea behingoz pakean uzten gaituzten, gure herrian.

Naiz eta oztopo guzti hauek egon, guk euskara maite dugu, eta eginkizun batzu antolatzea erabaki dugu. Laister emango dizuegu hoi en berriak.

EZTANDAK...! Joanden as- tean, kristoren ikara pasa dute herriko jendeek. Bazkal ondoren eben siestat- xoan zeudela, kolpez esnatuak izandu baitziren. Eztanda haundi bat sumatu zen herri guztian, harriak teila gainera eroriaz, beste batzu etxe barrutara sartuaz, etab....

Laister herriko C.I.A. taldea hasi zen «inbestigazioa» egiten. Eben txakur, oilo, behi eta gaineko guztiak ka- letara atera zituzten, ea eztanda hau nondik zetorren biden bat bilatu zu- ten! Teoriak desberdinak ziren batzu

auzoko Marian putza izango ote zen, besteak Igantzikoen «ataque infra- ganti», edo herriko terroristen bonba- ren bat...

Hauen inbestigazioekin ez gara ilargira errex ailegatuko. Lehengo «oiloren kasoa» ez dute oraindik garbitu eta berriroki beste bat agertu zaiote. Nolanahi guk aurreratzen di- zuegu esanez eztanda hoiek lehengo ko operatiba (BORTZAK BAT)-en lokal berriak egiteko besterik ez zela, eta garbi esaten ahal dizuegu, hau bai dala, «C.I.A.» talde honentzat egiaz- ko. EZTANDA!!!

BERA

64 MUSIKA IKASLE omen dire gure herrian. Begoña Rudi da irak- aslea eta lekua, lehen Lanbide Esko- la¹ zen etxean dute. Musikazko 4. ur- tera ailegatu dire haur aunitz eta baita musikagailuak² jotzeko garaiera. Or- kestratxo bat egiteko ilusio haundia- rekin daude eta Berako alkateak bu- rutan du orain ikastola dagoen gele- tan, herriko etxean, kontserbatorioa egitea. Arazoak ere badituzte, nola ez, haundiena irakaslea bera inongo lan kontraturik gabe ari dela eta honen- gatik Udala eta Diputazioari behar diren neurriak har zezaten eskatzen diete.

JOAN DIREN APIRILA ETA MAIATZEAN SOLAS EGIN ERAZI DITUZTEN LAPURKETAK izan ziren Bera- ko eliz nagusian bi aldiz eta behin he- rriko etxean. Elizan langabezirako³ bildu ziren diruak eta bertze batzuk baita eraman zituzten; herriko etxean berriz 45.000 pza. depositariatik. Eli- zan sotanak eta herriko etxean Nafa- roako bandera komunean sartu zi- tuzten baita eskailerako argiren bat ipurditik atera. Zer erran nahi dute gauza guztiok? nortzuk dira?.

1.978n UDALAK SINATU- TAKO⁴, AKORDIOA⁵ BE- TETZEA⁶ ESKATZEN ZU- TEN, haurtengo maiatzean, eskole- tako maisuek. Eskoletatik futbol ze- laiera berebilen arriskurik gabe bidea



etxia behar dela erraten du akordio honek. Bidea etxi ezkeror ia orain es- tua dagoen Altxatako karrika oraindik okerrago izango zela eta batez ere ka- mioiak Uhal zubira sartzeko larri ibi- leko zirela, eztabaidatzen⁶ aritu ziren Udalaren batzarrean. Azkenean bidea etsitzea erabaki zen baina ea kalteak sortzen ziren ala ez ikusteko, kurtsua bukatu arte epea⁷ jarri zuten. Erabaki honek Vila eta Lasarte jaunaren aur- kako botuak izan zituen semaforo, barrera edo bertze honelako irtenbi- dea egokiagoa⁸ ikusten zutelako. Ekainaren batean, Udalak bere hitza bete ez zuela ikustean (ez baitzuen inolako zerrakuririk paratu) eskoleko ikasle eta irakasleen artean, txandaka egonez, berebil eta kamioiei bidea etsi zieten.

DORREA TALDEKO ET- XEEK beren berogailuarekin⁹ dituz- ten arazoak¹⁰. Bortz etxe dire kaldera berarekin, berogailua eta ur beroa du- tenak. Azken denboraldi honetan se- kulako aberiak izan ditu kalderak eta azkenean lehertu da. Zerbitzu hauek ez daitezke alda, bizilagun batek etzez erratea aski baita. Halaz ere bizilagun batzu ez daude ados eta orain arte eramateko xistema honi ezetz erraten diote. Azkenean zertan geldituko da? Bakoitzak bere etxeko lanak egin eta elkarrekin dituen obligazioak ahan- tziiko ote ditu?.

300 PZTA. IKASLE BA- KOITZARENGATIK ematen dizkie medikuei Diputazioak, eskole-

tan haurrei ikustaldi bat egiteko. Ez da lehenbiziko urtea, medikuek egin behar hau betetzen ez dutela eta aurten ere gauza bera gerta ez dadin, kurtsua bukatu baino lehen, guraso eta irakasle batzu medikuekin arazo honetaz mintzatu ziren.

- 1 — **Lanbide eskola:** escuela profesional
- 2 — **Musikagailu:** instrumento de musica
- 3 — **Langabezi:** paro
- 4 — **Sinatu:** firmar
- 5 — **Akordio:** acuerdo
- 6 — **Eztabadaitu:** discutir
- 7 — **Epe:** plazo
- 8 — **Egoki:** adecuado
- 9 — **Berogailu:** calefaccion
- 10 — **Arazo:** problema

AGERRAKO AUZOKOAK
idazki¹ bat egin dute eta Udalari bidali: kamioiak auzoa aparkalekutat hartu eta bideak ondatzen dituztela; Bidasoa kalean seinaleztapena² falta dela eta Txantre jaunak eta Udalak elkarrekin duten hauziari³ lehen bait lehen irtenbidea ematea eskatzen zuten. Honeri Udalak erantzun zien Txantre jaunak 4.000 m. eman nahi duela herriareztat eta «obras publicas» eri seinaleztapena jartzea eskatu kiola.

VALENTZIANOAK BE-RARA. Harrituta gelditu ginen «Dia de Navarra» ospatu behar dela aurten eta Diputazioak antolatuta, uztailaren 2an Valentziako orkestra bat heldu dela jakitean. Izan dezake gaizki pentsatzea dela, baina ez ahal da Euskalerrian «Beran oraindik ezagutu ez dugun oskestraren bat»? ez ahal da ia lehen ahul dagoen gure euskal kultura itotzeko Diputazioaren bertze bulkadi bat?

IGERILEKUA ZABALIK!! Egitazko leku ederra gelditu da. Azkenean bete da gure aspaldiko ametsa eta aurten goxo goxo, ur frexkoetan igaroko ditugu udako beroak. Sartzeko ordaindu behar da eta txartelak badire uda guztirako, hilabete baterako eta egun baterako ere. 2.000 pzta. garestiena eta 25 pzta. merkeena, gizakume heldu, gazte eta haur denen poltsak kontuan idukitzen dire. Igeri egiten irakasteko ere norbait izatea posible izango dela uste dute. Arauak⁴ egiterakoan «anti-voyeur» jokatu zuen zinegotzi batek: lekuaren barrenean ibiltzeko igeri egiteko jantzi ibili behar zela zion, (bertzelaz lerdeak⁵



erortzen zitzaizkielarik, batzu bertze egiterik gabe begiratzen joango zirela. pentsatuko zuen?) Beharrik etzez erantzun ziotela, bertze hainekoan ederra genuen iparra jotzen duen egunetan nahi ta nahiez erdi larrugorritan egon beharrak baldin bagenuen edo gure «mitxelinak» irakutsi nahi ez ditugunok nahi ta nahiezkoa agerian jartzea baldin bagenuen. Garbitasun neurriak ere lotu dituzte zinegotziak: ezin daiteke oinetakoekin belarrean ibili, ezta belarrean jan, ezta flotadoreekin uretan ibili, uretan sartzeko duxatu behar da lehendik eta ileluzedunek gorrua erabili beharko dute. Baina bada zinegotzik ikusten ez duten akats bat: zaindariak «piscinas Bera» paratzen duen niki bat jarriko dute; ez ahal zen obe «igerilekuak Bera» paratzen bazuen; ez ahal da hau ere gure hizkuntzaren alde «garbitasun» neurri bat?

- 1 — **Idazki:** escrito
- 2 — **Seinaleztapen:** senalizacion
- 3 — **Hauzi:** pleito
- 4 — **Arau:** norma
- 5 — **Lerde:** baba
- 6 — **Baimen:** permiso

IBARDIGOAK Udalari Mandela eta Biongo ura Ibardinara eramateko baimena⁶ eskatu diote, baita bideak moldatzeko ere. Dirua haiek aintzinduta egingo zirela lanak. Baita Ibardingoak zioten, uraren txartelek kobratzea beren esku artuko zutela, dirua bilduz lanen zorrak ordaintzeko. Udalak etzez zion xixtema honi eta Diputazioatik espero dituen diru zuzuetatik, hasiera bateko 3.000.000 pzta. emango zuela erabaki zuen. Zinegotzi batzu garbi ikusten etzutena zera zen: ur garbiak sartu bai, baina ur zikinekin zer egin? eta diruak Ibardinen gastatzen badire, herrian diren beharrak betetzeko zenbat geldituko da?

TXANTXAGORRIA





ETXALAR

SALAKETA. Bagenekien, mila oztopo izango genuela Nafarroako gobernu eta Diputaziogandik E.T.B. ikusi ahal izateko. Baina pentsatzen ez genuena zera da: E.T.B. ikusteko «ilegalki» paratzen dugun errepikagailua, Herriko alkateak salatuko zuenik. Horrela diote behintzat Herri mailan laster zabaldu diren zurrumurru kezagarriak.

Posible ote da hainbesteko gorrotoa euskarari eta euskal nortasunari?

ETXALARKO MAISU-MAISTRAK EZ DAKITE EUSKARAZ. Gaur egun Etxalar-ko hauerrek erdara hutsez ikas dezakete. Nahiz eta eskolaurrea euskaraz egin (Herriko ikastolan eskolaurrea bakarrik ematen baita). Oinarrizko Hezkuntza Orokorra, O.H.O., edo E.G.B. egiteko, beren aukera bakarra, erdara hutsez egitea dute. Hori dela eta, bide bakarra ikusten da arazo hau zuzentzeko: O.H.O. euskaraz ikastea. Hortarako lehen oztopoa oraingo maisu-maistra berak dira. Hauek «ti-

tulo en propiedad» dute eta dirudie-
nez ez dute inolako asmorik euskara
ikasteko. «Ez ote dira ohartzen, honi
dagokionez, zer nolako kalteak egiten
ari diren?». Etxalartarrok eta euskal-
dun guztiok, zuzeneko dugu, gure
haurren ikasketak euskaraz izateko
eskaera. Eta hori, Diputazio, Estatu
eta Udalen eskuetan dago. Beraiek
ordaindu behar lukete Euskal Eskola
Publiko. Zertarako kobratzen digute
ba hainbeste zerga?.

Noiz nahi ordu da, honetaz zeozer
egiteko. Guraso, zinegotzi eta Etxala-
tar guztien eskuetan dago honen alde
borrokatzea. Beste Herri batzutan lor-
tu baidute jadanik, hemen azaltzen
duguna.

JON DUTELKOA





ESPEKTAKULO FOLKLORIKO OTE?

Norberaren kontradizioak.

Noiz arte «pleitesia» erakusten?

Noiz arte besteek agintzen dizkigutenak egiten?

Noiz arte eguneroko zapaltzaile madarikatu horien menpean?

Noiz arte...?

Egun ospetsu batean, orain berriro, herriko jauntxoak eta atzerritar zapaltzaileen atzetik, txistu jotzen ikusi zintuztedanean benetan sufritu nuen.

Aski da!

Izan gaitzen libre!

Penagarri

Mingarri

Negargarria da, horrelakoak behin eta berri ikustea. Anbiguotasunik gabe, aska gaitzen madarikatu horien menpetik. Zaila izanik ere, beharrezkoa dugu.




EDOZEIN

BAZTAN

GAUZ BITXIA EDO ISKANBILATSUA sortu da

Elizondoko herrian lehendabiziko uda egunekin. Hauxe da historia: Elizondoko alkate juradoak, bailadako ordezkariekin mintzatu zen, bere asmoak jakineraziz, hau da: Merkatuko Plazan zegoen burdin-zeko iturria nahiko herdoildurik eta egoera txarean dagoenez konpondu eta herdoila kentzea asmatu zutela, hitzez bederen erantzun zioten ongi zela. Baimenakin batera lanetan ari zirela hor eta bi udaltzain iturria biltzera agertu ziren, esanaz Santiago Uztarroz bailadko alkateordea den aginduak betetzen zitzutela. Horrela Elizondoko iturria «sekuestratuta» gelditu dela diote batzuk, besteek lapurtu egin dutela, jakineraziz nola 1887ko paper batzutan agertzen dela Iturri-Ederra Elkartearen diru laguntzaz egin zela gaur lapurtu duten iturria. Elizondoko Udalte-xean dagoen bitartean hau jakindu dugu, beraz eta ondorioz, iturria Elkartearena da ez beste inorena.

DIPUTAZIOTIK BADA-TOR BERRIA. Noizbait izanta ere badirudi Mugaire eta Elizondo



MARDEA (ARRAIOTZ)

tartean dagoen autobide zakar eta ondatua den bide hori konpondu behar dutela. Bertarako hirurogei miloitik gorako presupuestoa onartu da... Baina, ahtx! Zer gertatuko da Irurita eta Elizondo tartean diren zuhaitzekin? Udalak orain dela zazpi hilabete Diputazioari bi estudio eskatu zion, hau

da: bat zuhaitz berriekin ornituz eta denbora berean bizikleta eta jendearentzako bazterraz apaintzea. Beste bat orain diren zuhaitz hoiek errespetatuz. Non dago Dputazioa erantzuteko? Edo behar bada Udalak eskaera hori baztertu du? Jakin nahi genuke.




BAZTANDARREN BILT-ZARRA den festa, irailaren 9an izango da, hala onartu zuen Elkar-teak azken batzarrean. Beti bezala laister aterako da automobilaren zozketa eta urteroko eginturek izango dira.

ELIZONDOKO FESTETAN 50urte egingo ditu «Baztango Ziklista Itzulketak». Urrezko ezta hauek ospatzen direla eta omenaldi bai egingo zaiote itzulketara irabazi izan duten baztandar Jeronimo Zaldia (Arizkun)(1933 eta 1934), alandoztar Lorenzo Iriarte(1942 eta 1943). Oroi nahiean errango dugu itzulketara hau irabazi izan zutela ere Francisco Garde zena (Lekarotze 1.931), Angel Oskoz zena (Elizondo 1.932-1.935), Segundo Jubera zena (Ziga 1.939-1.940), eta beratar Migel Irigoienek (1.952). Nafarroako bigarren ziklista proba zaharrena da eta gorabeherak izanik gaurko egunetara ihardetsi da zoriez.

HARRIGARRIA BESTE ALDETIK Diputazioak eman duen erantzuna «Ordenanzas, Costos y Paramentos» lege berexi hoiei. Berritu gogoan lege hoiek azken Udalak bi abokatu eta ordezkariekin aldatu zituzten gaurko egoera bilduz eta zenbait arazo zuzenduz. «Fuero Nuevo de Navarra» eta «RAMN» diren legeak, ez ditula osatzen Baztango Ordenantzetan diren oinarriak. To! nondik eta orain gure Diputazio Erakundeak agertu zaizkigu gure herri lege zaharren hausle.

BAGORDIKO MALDAK neurtu du Nafarroako itzulaldian ibili ziren ziklistak. Eder bezain nekagarri izan baitzen ikustea nola mutil gazte hoiek erdi errestan igo zuten aunitzek uste ez izanta ere. Bertan bildu ziren jende multzoak jakinerazi zuten zein erakarkorra izan zen bertan ezartzea helmuga.



EUSKARAZ ETA KITTO !!

LESAKA

DIPUTAZIOAK ZERGATAN BILTZEN DUEN DIROEN ehundik 40 Herriko Etxea moldatzeko ematen du.

UDALAK DYAREN anbulantzientzat aparkaleku erreserbatua eman du.

KANPOSANTUA egoera kezagarrian dagoela eta, hilobi berrientzako lekurik ez dago.

PILOTAZALE ELKARTE BERRI BAT sortu dela eta Udalak leku bat ematea erabaki du.



ORDU EXTRAK? EZ ESKERRIK ASKO!
LESAKAKO LAMINAZIONETAN ORDU EXTRAK AUNITZ
SARTZEN DIRA, JOAN DEN 1.983.EAN SARTU ZIREN 100.000
ORDU BAINO GEHiago.



Laminazionesko

langileek ikusten genuen ordu extrak hagitz aunitz sartzen zirela eta pentsatzen genuen ordurik ez bazen sartzen jende berria lanean sartzeko posibilitatea izanen zela. Horrela plantila handitzeko edo bakanteak betetzeko.

Intentzio honekin Langileen Komiteak Direkzioarekin solastu nahi zuen eta azkenok ez dutela ezer erratekorik diote. Orduan egin zena hau da: laneko inspezioan (ante el director de trabajo) denuntzia bat.

Langileen Komiteko talde bat «laneko inspetorearengana» ordu extra aunitz sartzen direla eta, joan zen erratera hau ez dela denuntzia egiteko, baizik eta azken finean lanpostu berriak sortzeko dela.

Badakigu Laneko Inspezioa ez dagoela langileen alde eta hau argi ikusten dugu Direkzioari bakarrik 50.000 pztaren multa eman dioenean. Honela nagusiak berearekin ateratzen dira hainbesteko kalteari (100.000 ordu extra) irrigarrizko multa hau.


Langileen komiteko talde honek lan bat prestatu zuen ordu extrak non sartzen ziren jakinez eta lantokian denuntzia publiko bat egin zuen; baita langabetuen elkartearekin egon zen. Lesakako langabetuak kartela eta pankartekin kanpaina bat egin zuten erranez: **ORDU EXTRARIK EZ!** Baitere Herriko Etxera errateko beti bezala langabetuak diskriminatuak daudela.

DENOK LANERAKO ESKUBIDEA DUGU!!


ORDU EXTRARIK EZ!!


EXPLOTAZIORIK EZ!!

MENDI



...ETA BIHOTZ
 BIHOTZETIK ESKATZEN
 DIZUT ENE PS.O.E.
 MAITIA, LANGILE BAKAR
 BATEK BEDEREN
 JARRAI DEZALA BERE
 LANPOSTUAN.
 AMEN.





Baztango Mendizale Elkarteko gazte hoiek eguraldi txarrari gogor eginez Maiatzako bi lehenbiziko igandetan ibilaldi aipagarriak eginak dituzte. 6-ean Elizondotik Auritzera oinez ibilaldi huntan berrogeita hamar lagun bildu zirela. Goizeko sei terdietan Elizondoko Beartzungo hauzotik abiatu eta Berdaitz leporaino (117 mugarria). Hemendik gainbera Aldudera, gero bidea yarraikiz Urepele-raino zortzi terdietako. Xalbador zenaren herri huntan gosaldue eta bederatzietako berriz kurri, Urepeltik beti goiti malda izigarriak iraganik eta Bankako dermiotik sarturik 152 mugarritik Auritzko lurretan sartu artio eta Atalozki deitzen den lekutik segi aintzinat eta hamabi terdietako Auritzen. Hemen bazkaldu eta atsalde erditsuan mendizaleen bila etorritako autobusean, Luzaide, Arnegi eta Donibane Garazi-raino. Herri eder huntan egonaldi bat eginik beriz autobusera eta Baigorri barna Izpegira Elizondora zortzi terdietako.

Baztan eta Auritzek beti izan dute elkarren arteko lokarri sendoak. Denbora batez baztandar gazte aunitz joaten ziren Auritzera segara, belar ebakitzera. Pilaka joaten ziren eta yornal ona eskuratzen ere. Gerra aintzineko denbora hartan bost peztako saria irabazten omen zuten segari onak, egunero bost peztako denbora hartan aunitz baitzen eta mantene ere yornalarekin, gazte hoiek kontent ziren. Gero ondoko urte hoietan yornalak haundiagoak hartuz holaxe hogeie egun eta gehiago ere Auritzen iraganik sos multzu ederrakin etxeratzen omen ziren. Orain eta aspaldi huntan ere ezta holakorik. Bizi modua eta aurrerapenak aldatu dute lehenagoko egoera eta denbora haiek joan ziren. Orduan baztandar gazte hoiek oinez eta beren sega eta gainerakoak bizkarrean harturik sei-zazpi orduko ibilaldia, Aldude, Urepele eta Bankan barna Auritzerraino. Denbora hartako segari hoiek orain zaharturik oroitzapen ederrak dauzkare beren bihotzetan, gazte denborako eginkizunak aipatzen dituztelarik. Beti izaten omen zen soñulariren bat bere kordionakin joaten zena eta berdin agozko kordionakin ere eta afalondan biltzen omen ziren

lagun guziak eta sekulako dibersioa izaten omen zuten eta hori egun guzian segan ari izanta ondoan. Geroztik zer aldakuntzak gure herrietako lanpide-tan.

Haziendakin ere berdin gertatzen zen. Ekainan sartu orduko Baztandar aunitzek eramaten zituzten beren beiak Auritzeko bazketara eta uda guzia han pasturik gero berriz beren etxetara ekartzen zituztela. Beiekin ere oinez eta Aldude, Urepele eta Bankan barna Auritzera. Zenbaitzu eta gehienek hain segur, beiak Auritzen utzi eta etxera berriz oinez, gan-etorri hortan behar bada hamabi ordu iraganik. Orain ere zenbaitzuk eramaten omen dituzte beiak Auritzeko bazketara bainan ez lehenagoko bezala.

Bertze ibilaldi bat ere behar nuke aipatu. Maiatzako 13-an baztandar mendizale hoiek bertze itzuli bat egin dute. Baztango hamabortz herrietara ibilaldia oinez. Almandoztik abiaturik, ondoko herri-rra Berroeta eta gero Aniz, Ziga, Oronoz, Arraioz, Irurita, Gartzaín, Lekarotz, Azpilkueta, Amaiur eta Erratzu. Herriko ostatuan bazkaldu eta bazkalondan ibilkariak indar-berriturik, berriz kurri eta Arizkun, Elbete eta Elizondo, ibilaldia hemen bururaturik, berrogei kilometroko bidea eginik. Baztango itzuli huntan hogeita hamasei laun ibiliak dira. Aipatu ditudan bi ibilaldi hoietan uria egin zuen bainan horrengatik axolik ez, bustita ere segi aintzinat. Bi ibilaldiak arras ongi joan dira eta deus makurrik gabe.

Baztan-Bidasoko mendietan ibiltzea zoragarria da, batez ere eguraldi eder batekin. Iruñe eta Gipuzko aldetik ere aunitz etortzen dira gure eskualdeko mendietara eta Larun, Ekaitza, Mendañur, Saioa, Auza, Iparla, Alkurruntz, Artxuri, Legate eta gainerako mendi gallurretan ibiliaz atsedean hartzen dute. Egia erran gure sorlekua ez dugu behar adine ezagutzen, maizago ibili behar ginuke gure Euskalerrria gauza guzien gainetik maitatzeko.

Mariano Izeta

ILLEKUETAKO BERTSO ZAHARRAK

Pablo Harribilagak botatuak

- 1 Xuribaita mukertegi
Xomingenia pitzer haundi
Lorebaita zurrutegi
Arotzenia zerriztegi
- 2 Zelaiako ialfer haundi
Teletxeko zapel haundi
Errotako lapur txiki
Obenia zezentegi
- 3 Tantalabait hiru txiki
Jauztekarria opil berri
Amusbaita kuzkurtegi
Lontsenbaita ilustrategi
- 4 Aramunti ergeltegi
Ugania zalatari
Mikelenia tran tran
Arantxenia erres bedi
- 5 Iagerbaita panaderi
Illekua sudur haundi
Elgeteko pipai haundi
Alzugaraia morotegi
- 6 Martinximón opor txiki
Garakutxia xakil xakil
Kontxenia sermoilari
Konpania gezur zako
- 7 Olarako burnetegi
Perotxenia burruztegi
Idigoitia atsotegi
Ezkerrena hotel polit



ERROTA

Berrehun edo hirurehun urte izanen ditu errotak. Ehun urte bada Felix Perez Tafallak, Mariezkurren-en ataxiri saldu ziola. Lur eta etxe aunitz omen zituen Berako Fabrika Zaharran zegoen jaun honek.

Errotak bi harri ditu, bat azpian geldirik dagoena eta bertzea gainean buelta ematen duena. Harriak altxatzeko tresnak KISKANTIA izena du.




Honela dire banan banan errotaren puskek duten izena.

ALDARRUA, ASTUA, PIKATZA, KALAKA (bere izenak adierazten duen bezala «kalak» «kalak» egiten du). Beitian SILA; silan barrenean BASUA; basuaren barrenean BURRUNTZIA; burruntzian KABILA. Gero dire ARDATZA eta urak ibiltzen duena AZANIA. Harria seguratzekoa MARATILA izena du.


HUNTZA







Illekueta: Beraiko perxenta



EUSKARAGATIK

LOTSATU?



Berako eskola osatzen dugunoi:

Ondoko kexa hau agertu nahi dizuet: Maiz aski gure artean euskaraz hitz egiten dugunean, baten batek edo gehiagok, guk erraten duguna errepikatzen du burlaz eta irriz, baina tristeena ez da hau, euskaldunen erreakzio lotsatia hagitzez ere tristeagoa da.

Ez dela kontu berria badakigu, zenbat eta zenbat aldiz gu eta gure aintzinakoak lotsatuta gelditu gara erdaraz gaizki hitzegiteagatik?

Uste dut, hau akitzeko ordua ailegatu dela. Nola?, erranen dizuet: Lotsatu beharrean, haundituz, euskaraz hitz gehiago eginaz jende horien aintzinean, ea behingoan ohartzen diren EUSKAL HERRIAN bizi garela, eta EUSKARA dela gure lehendabiziko hizkuntza. Horietatik aunitzen gurasoek ederki dakite euskaraz eta beurek ez badute euskaraz egin nahi, hor konpon daitezela, beti izandu dire munduan, jende arin eta kaskarrak beren gurasoaz eta beren herriaz lotsatu direnak.

Honekin ez dut erran nahi, ez dugula erdaraz ikasi behar, ezta guttiago ere, gure gizarte honetan bizitzeko oso beharrezkoa dugulako eta ziur egon gaitezen, nahi badugu, oso ongi ikasten ahal dugula bertze hizkuntza pila bat, baina beti burua ongi altxatuta, inor baino guttiago garela inoiz ere pentsatu gabe.


Zer gertatuko litzaie euskaraz hitzegiten ez duten horiei Arantzako eskolara, kasualitatez joan beharrak balirateke, han dena euskaraz erakutsiko balitzaie? Nere ustez «sobresaliente» pila bat ateriko lituzkete.

Azkenean, euskarari buruz Gabriel Aresti poeta euskaldunaren bertso hauek:

Herria dago negarrez
beti penetan,
ez dago zugatik jarrai
ama
trantze honetan.

Euskara galduko bada,
erderagatik,
gal benazate betiko
ama
ni berarekin.

Bizi gaitean
beti bakean,
baina guztiz libertate,
ama,
eder batean.



KUKU

Bidegorri bat Baztan-Bidasoan?



Argi dago jendea gero eta gehiago konturatzen ari dela txirringaren bentajaz, osasunaren aldetik, ekonomi aldetik, baita bizi modu alternatibo baten zati bat bezala.

Trenbide bat ahaztua eta baztertua, baina orain nahiko garrantzitsu izan zitekeena.

Orain dela hogeit hamar urte gutxi gora behera eta industri gorakadarekin batera zabaldu zen gure artean «boom», «moda» edo horrelako zerbait, gero denborarekin, monstro bat bihurtu dena: kotxea. Agian orduan aurrerapen eta askatasunaren sinbolo bat iduri zuen, baina orain argi dago «rollo» guzti horiek gure aurka bihurtu direla, bideak, herriak, gu geuk ere bere menpean gaude eta.

Hain gorotzak gaude, ezin garela inora atera kotxerik gabe.

Baina bertze gauza okerragoak ere badaude: individualismoa, egoismoa, kontsumismoa, etab., ahaztu gabe osasunaren kalteak, gutxiago ibiltzea, kutsadura edo kontaminazioa, istripuak...

Benoa, baina idatzlan honetan nere helburu bakarra ez zen kotxeak pikutara bidaltzea, honen ondorio bat baldin bada ere. Bai, kontsumismo egoera honetan jendearen artean aurkako mugimendua zabaltzen ari da, bizi modu osasungarriaten alde, orain arteko giroarekin hautsi nahiean, azkenaldi honetan txirrundulari joera bat ere zabaltzen.

Joera hau gero eta gehiago zabaltzen ari da batzuentzako moda huts bat delako, besteentzat kirola egiteko era bat, baita denbora pasatzeko modu atsegingarria, baina zabaldu da ere txirringa kotxearen alternatiba bat bezala.

Argi dago jendea gero eta gehiago konturatzen ari dela txirringaren bentajaz, osasunaren aldetik, ekonomia aldetik, baita bizi modu alternatibo baten zati bat bezala.

Eta hor hasitzen dira akatsak.

Begi bistan dago bide guztietan kotxeak direla nagusi, besteen aukerak mugatuz.

Txirringan ateratzen zaren bakoitzean «kristorenak» aditzen dituzu eta gainera arriskuan jartzen duzu zure bizitza, bideak haienak izango balira bezala.

Oberena izango zen inkompatibilitate hori haustea, bideak egin direnentzako bihurtzea, hori da, denentzako, baina momentu honetan hau ezinezko utopia bakar bat da, eta txirrundulez ibili nahi dugun guztiok kalera ateratzea kotxezalei ohitutzeko aukera izango zen, baina hau masokismo bat iduri zait. Gauzak horrela daudela eta alternatiba bat bururatu zait. Ez helburu nagusia bezala (ideala izango zen nahi dugun bidetik nahi dugun bezala ibiltzea...) baina oraingo egoeratik



ateratzeko bide bat izango zen... zein?. Orain dela urte batzuk arte bazegoen tren bat Elizondotik Iruneraino zihoana, nahiko famatua gainera. Tren hori egun batean gelditu zen eta berakin batera han gelditu zen trenbidea. Trenbide bat nahiko ondaturia dagoena, ahaztua eta baztertua, baina hor dagoena eta orain nahiko garrantzitsu izan zitekeena.

Ni ez naiz ibili kalkuloak egiten, baina ez dut uste hain garestia aterako zenik, bide horiek moldatzea eta Diputazioaren presupuestoaren barnean zati «insignifikantea» izango zen noski. (beste aldetik, lana horik inguruko langabetuei heman eta haientzako laguntza koxkor bat izango zen).

Horrela 50 kilometro izango genuen nahi dugun bezala ibiltzeko, inoren menpean egon gabe, edozein txofer salbajeak lurrera botako gintuen beldurrik gabe.

Ez turismoa edo kirola egiteko bakarrik, baizik eta edozein lekutara joateko kotzearen alternatiba bat bezala.


Ez da ezinezko gauza bat. Orain zabaldu da Eusko Jaurlaritzaren bide gorrien proiektu, ez na-go oso ados proiektu horrekin, akats haunitz dauka baina idea eta hasiera bezala ez dago horrein gaizki eta hemen bidea ia egina izanez, ez zen zaila izango zerbait lortzea.

Orain idea horrekin ados gauden guztiok elkar-turik jokatu behar genuke proiektu bat egiteko eta lortu arte borrokatzeko. Ahal izango dugu?

LESAKAKO GAZTE BAT.



EGUN BAT MENDIKO LAGUNEN ARTEAN



Egunsentia¹, gauza guztiak altxatzen dira eta lainoekin oztopo egiten² dute, goxo goxo doazen lainoekin. Mendi tartean lainoa dago. Denak eguzkia noiz aterako den esperuan, beti alaia eta bizia den eguzkiari. Goibelak, sakabanatuak³ laister egiten dute eta haien artean zero urdinezko tartaka batzu agertzen dira. Metek, ixilik egun berriak dakarren gertakizunak⁴ itxoiten dute eta errekek mendi gainetik ekartzen dituen berriak entzutera exeritzen dira.

Jeiki eta bere lagun guzietik bezala, goiz goizetik ateratzen da ERLE. Bere inguruetara irrino⁵ batekin begiratzen du. Poliki, poliki, hegaldatzen da eta egun berriaren arnasa hartzen du. ARGITXO (urtxintxa⁶), bago baten adarrean pina burua gordetzen ari da eta ERLEk pozik agurtzen du; berarekin solasalдитxo bat eginta ondoren erreka guruzatu eta sasi tartean galtzen da. Bere korolaren polena eman nahi dion mitxeleta⁷ baten bila dabila.

Eguna argia heldu da eta eguzkiak bere izpiekin⁸ mendia apaintzen duelarik, ERLE oso alai dabila bere eguneroko zeregina bilaka eta bizitzeko alaitasuna bete betean aurkitu nahiean.

—Beitira begiratzen du eta ara zer ikusten duen!

Adar baten itzalean zinaurri lerro bat lanean karrakilaka eta janaria beren zinaurritegira eramaten.

Zinaurriek, ERLE ezagutzean, hain txorna⁹ dela eta (loreekin oztopo egin eta harrekin gizon helduetara¹⁰ jostatzen delako) irri eginez agurtzen dute.

Pinu, bago eta iratzen artean hegaldatzan da iturri garbi bateraino iritsi arte; pixko bat buzitzen da eta berriro bere bidea jarraitzen du. Urrutira mitxeleta batzu ikusten ditu; haietatik batengana poliki hurbiltzen da eta atseginez agurtzen du.

—Egun on! Mitxeleta.

—Kaixo Erle! Zer moduz zaude?

—Ongi, mendiren barrena ibilaldi¹¹ bat egiten, polen pixko baten eske heldu naiz.

—Uzten didazu? —galdetzen du Erlek.

—Bai, dena zurea da.

—Atzo nik ernaldu nuen¹² eta sobera zena hemen daukat hartu nahi duenarentzat —mitxeletak maitagarri erantzuten du.

Mementu bat pasatuta, biek batera ixildu dira.

Zerbait gertatzen da.

Basoko¹³ bizia gelditu da, dena ixiltasuna bihurtzen da.

Pinpilipauxak¹⁴ hegaldatzan dira.

Txoriek ez dute abesten.

Loreek beren burua biratzen dute.

ARGITXO eta bere umeak izututa laister gordetzen dira.

—Kontuz! Gizon bat urbiltzen da!

—Gizon bat!! , gizon bat!! —iragartzen du norbaitek

ERLEk belarra, loreak eta adarrak zanpatu eta bizirik gabe uzten dituen botaundiak, mitxeleta baten atzetik ikusten ditu. Zinaurriek lanean jarraitzen dute setazuak eta ez da honela beharrezkoa zela izan, bota batek hil dituela.

Gero lurra dardaratzen duen tiro bat entzuten da.

Bertze tiro batek ERLEren lagun baten biziarekin bukatzen du; dena odola eta hondamenez beterik gelditzen da.

«Basoko gizakumeek», beldurtuak hegaldatu eta laster egiten dute.

Mementu bat pasatzen da.

Baretasuna¹⁵ birkonpondu¹⁶ da, bainan ankaerrestoak mendian betirako seinalatuak gelditu dira, baita ERLE eta bere lagunaren gogoan. Gizonarengatik ikaratzen dira, hiltzeko asmoekin¹⁷ joaten bada, berea ez den mendira joaten denean.



BINTXU

- 1 — Egunsentia: amanecer
- 2 — Oztopo egin: tropezar
- 3 — Sakabanatua: esparcido
- 4 — Gertakizun: acontecimiento
- 5 — Irrino: sonrisa
- 6 — Urtxintxa: ardilla
- 7 — Mitxeleta: amapola
- 8 — Izpi: rayo
- 9 — Txorna: despistado

- 10 — Heldua: mayor
- 11 — Ibilaldi: paseo
- 12 — Ernaldi: fecundar
- 13 — Baso: bosque
- 14 — Pinpilipauxa: mariposa
- 15 — Baretasun: calma
- 16 — Birkonpondu: recomponer
- 17 — Asmo: intencion





Duela hamar hamabost urte ospatzen ziren besta hauek Frain auzoan. Garai hartan bestak antolatzen zituztenak gazteak ziren alegia, baina haiek lan bat lortu nahirik, behintzat bost bat gazte, Ameriketara joan behar izan zuten. Orain haietaz ez dakigu ia ezer, egun hauetan etorri da, adin zuzen Jose A. Maia, Itekobordakoa.

Honekin kontatzera noa pis-ka bat nolakoa izan zen besta hura. Elordiko errekan egiten zen, gaztaina arbola azpian. Besta hau lehen ez dut aipatu, baina Santiagotan ospatzen zen, nahiz eta Salbatoetan egin behar zen.

Beti bezala bazkare eder bat antolatzen zuten, adin zuzen zikiro jatea eta honen ondoren izugarrizko parranda musika eta ttotta barrena pixka bat berotzeko. Besta hau zen batezere auzoko gazteak eta ez hain gazteak elkartzeko urtean behin badare.

Besta honen ohitura galdu zen, baina duela hiru urte ezgeroztik orain gauden gazteak antolatzen hasi ginen berriro besta

hau eta nola gainera!.

Bestak berdin segitzen du, tokiz aldatu besterik ez dugu egin.

Lehen gaztaina azpian, orain teilatu azpian.

Herriko etxeak utzi digu urte hauetan depuradorako lokala, hau politagoa izango litzateke arbola azpian egingo balitz, baina beti eguraldia dela eta, ba neurriak artu behar direla pentsatzen dut.

Zer lortu nahi dugu besta honekin?.

Batez ere adierazi Frain auzoa bizirik dagoela, jendeak lan egiteko gogoia daukala, auzoko jendeen artean oso arremian onak daudela eta edozer gauz egiteko prest gaudela.

Bertze aldetik hizkuntza, ez ahal dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena?.

Ba guk hori oso garbi, daukagu, **EUSKARAZ ETA KITTO!**.

Urtero bezala bazkare eder bat izan genuen, zikiro jatea en-saladakin eta postre berezia arroz-esnea, auzoko neska jatorrenak eta jatekoa hain ongi prestatua zegoen ezin zela ohea izan.

Gero Amuriza eta Lopategi bertsotan, Lesakako trikitilari gazteak eta Madariaga bere akordeoiakin.

Oso giro ederre zegoen. Denetara 115 pertsona ginen bazkaltzen eta pentsatzen dut ez duela inork kejarik izango, bertzela badakite hoberena etxe zuloan sartu eta han gelditzea dute(hau broma bat da, ez aseratu).

Baina besta ez da hemen gelditzen, auzoan ermita eder bat genuen, baina hau lehen, zeren eta azkeneko uholdetan dena ondatu zen.

Hau zela eta ez genuen mezarik izan, pentsatzen dut arrazoi bat bagenuela meza ez egiteko.

Bukatzeko rifan zozketa egin genuen eta hauek izan ziren zenbakiak:

- 1) TELEBISTA 0514
- 2) KANPING 1694
- 3) IRRATIKASS. 1364

Telebistaren zenbakia ia agertu da, eta gainera Berako famili bateri, hemendik gure zorionak.

Auzoko gazte bat



XABIER ERRORI JARRIAK:

Hona hemen aurtengo
Fraingo bestetan bertsolariek
bota zituzten bertso batzu:

AMURIZAK NAFARROARI:

**Libre dabilta txoriak eta
libre hainbeste ehiztari.
Libre utzi ta segi beharra
daukagu gaurko bestari.
Bazkal onduan denak euskaldun
eta euskaraz hor ari.
Nola arrairo erraten dute?
Hau ez ote dan Euskadi!**

**Probintzi hontan badu euskadik
bere erroa jarria
ta historian guk badakigu
hauxe dela oinarria.
Madril aldetik beti lapurra,
beti zigorrez harria
Bainan euskara bizi den arte,
hau da gure aberria!**

Amuriza:

Mendi altuan kantuz ta hegan
uso eta biligarro.
Mendian gora bada zuhaitza
ta horren sustrai eta erro.
Zuen auzoan sortua omen da
guztion Xabier Erro.
Holako mutil bat sortu duen
aita egon leike harro. (bis)

Lopategi:

Hoiek bihotzez maite baidute
edonungo mendi gaina,
jokabidean azaldu dute
jokera oso bikaina.
Erro ta bere lagunak berriz
egin diguten hazaña,
periodikura begitu ezgero
ez da enteratu Espaina. (bis)

Amuriza:

Espaini hortan izan zutela
benetan tripako mina,
orain Makalu ta lehen Eberest
gure mutilek egina.
Madril aldeko gibel larruan
sartu zitzaizkizun ozpina,
beren bandera haren aurretik
Eberesten ikurrina. (bis)

Lopategi:

Alaitu ginan euskaldun denok
holako berri ez-tian.
Zabaleta ta Erro lagunak
beren gogo amestian,
bildurrik gabe gora ta gora
elur eta eguzkian.
Gaur ikurrina Eberest puntan
ta española azpian. (bis)

Zihur nago:
 harentzat
 dezepzio bat izan nintzen
 ez nintzen mendekuaren esku ar bortitza
 iraganaren garbitzaile zuhurra
 presentearen arrazoi esperantzagarria
 etorkizunaren amets lausengatua
 eta
 ezagutu ninduenen
 zulo luze
 buzti baten zehar,
 eskuz esku,
 begiradaz begirada,
 bostpasei kilo haragi nagarti
 bere eskuetara ailegatu nintzenen,
 ez nintzen haren bakardadearen
 tristesia
 tanta
 bat baizik,
 haren hondamendiaren lekuko,
 koskor gris,
 borroso eme bat
 baizik.
 Eskuetan hartu ninduen,
 esku trakets,
 hunkituz,
 eta amak jarritako mila zapien zehar
 ene gorputzaren beroa sentitu zuen
 beste gorputz urrun
 bitarteko baten
 promesa
 eta frutu.
 Eta ene begi irekien aurrean
 negar
 egin zuen.
 Zihur nago:
 bere malkoek busti ninduten
 bere oinazeak inguratu ninduen
 eta egun hartan jaio zen
 betirako
 betirako
 lotzen gaitun gatea.

(Rikardo Baroja eskolako «Desagüe» aldizkaritik)

ZER ERRAN

*Solasa bat nahi dut esan
 etxeko balkoietan,
 neguko gauetan,
 eta mendiko elurretan,
 bainan... ZER ERRAN?*

Xabier M.

*Triste nago
 bai, hagitz triste
 ama hil zait
 eta inorgabe
 gelditu naiz bakarra
 deusere egin gabe
 hola hilko naiz ni ere.*

Angel Mari


LORATXO POLITA

*Loratxo txikia
 loratxo polita.
 Nahi duzu nerekin etorri?
 Nik urreztatuko zaitut
 eta nire lorategian beste loreen ondoan jarriko zaitut.
 Zu loratxo, politena izanen zara.
 Nahi duzu nerekin etorri? . Loratxo polita eta ederra.*

Patrizia







Zerbait erran nahi baduzu
eta zure iritziak, asmoak
edo marmariak argitaratzeko
desiratzen bazaude.....
bidat itzazu zure
keinu krudelak
"Ttipi-TTapa"-ra
Egin dezagun Ttipi-TTapa
denon albizkaria
Helbidea: Euskealduna Ostatua Bera

TTiPi-TTAPA

BAZTAN BIDASOAKO ALDIZKARIA

125 pzta.